
BURUKETAK

- Egizu eragiketak paper batean eta idatzi emaitzak laukitan,.

Geltoki batean 930 lagun zeuden. Tren bat iritsi da eta handik 210 lagun jaitsi dira. Ondoren, bi tren abiatu dira: batek 185 lagun eraman ditu, eta besteak, 206 lagun. Zenbat lagun daude orain geltokian?



lagun daude geltokian.

Biltegi batean 1.210 irin-zaku zeuden. Kamioi batek beste 375 zaku ekarri ditu, eta beste kamioi batek, berriz, 562 zaku eraman. Zenbat zaku daude orain biltegian?



zaku daude.

Oporraldietan, familia batek **7.900 €** gastatu ditu **hegazkin – txarteletan**, eta **3.780, hotelean**. Dena ordainduta, **975 € geratu** zaizkie.

Beraz, zenbat diru zuten **hasieran**, oporrak hasi aurretik?

Zenbat gastatu dute **guztira**?



€ zituzten hasieran.

€ gastatu dituzte.

Taberna batean **125 pintxo** egiten dituzte **goizetan**, eta **176 pintxo**, **arratsaldeetan**.

Zenbat pintxo egiten dituzte **egunean**?

Eta **astebetean**?



egiten dituzte egunean.

egiten dituzte astebetean.